

domekako kontuak

Mikel Aramnedi

Erosotasuna balitz xedea...

Partidu Popularra erosoago aurkitzen da oposizio gintzan aginte-lanetan baino», bota zuen atzo Moncloan adiskide onak dituen batek; babak eltzetik atera balitu bezala, gainera. Eta nor ez!; horrek ez du deuseztatzen, ordea, Andreottiren aburua: botereak baino gehiago ahultzen du boteretik ezak. Rodriguez Zapaterok izan du aste honetan bertan horren frogantza, bere *baroieta*ko batzuek gobernuaren Ur Plana ontzat eman dutenean, zuzendaritzak M. Iglesias aragoiarra babestu nahi zutenean. Hitz bitan esanda: Cañete eta Villalobosen aurka aritzea baino zailagoa da Cascosen obrei muzin egitea.

Izan ere, erosotasuna balitz xedea, argi legoke Ibarretzek ez lukeela legegaldia berrikitzen utzi behar: Gasteizko ganbera antzez-toki hutsa izatera behartuta dago, ez soilik hauteskundeak egin arte baizik indar politikoen arteko harremanak berregin arte. Urruti dago egun hori. Denbora faktore hutsala ez deneko abagune honetan ordea, gobernuak euts diezaioke ezerosotasunari iritzi mediatikoa eta iritzi publikoa bateratzen ez diren adinean eta oposizioak sinboloei bakarrik erasotzen dien bitartean. Aldiz, gotortze horri bisai baikor bat, bake-proposamen eta antzekoen bitartez, eman nahi izatea, alfer-alferrik aritzea izan daiteke, hortik inork ezer espero ez duenez.

Sinboloen gerra horretan aitzindari izan nahi dute Savater eta gainerakoek (primerako gordelekua da *euskal arazoa*, M. A. Cortes eta L. A. de Cuencak Madrilen bizi-



LAVANDEIRA / EFE
PPko buruzagiak, atzo Santiagon eginiko ekitaldi batean.

Zeta, zatitu eta saltzekotan

Argiro hitz egiten da jada Zeta taldea zatitu eta saltzeaz. Asensiok nahiko lan du gaitasunari aurrea hartzen, eta A3ko parteia salduta itomenetik atera zen taldea noraezean dago, nabarmen. Eta, nola ez, bi harrapari hurbildu dira zer eramango: Priesa eta Correo taldea (*El Herald*o-ko zilipurdiaren ondoren, *Las Provincias*-en berdintsu geratu dena). Mokadurik desiratuena, jakina, *El Periódico*, Katalunian erroto eta ondo funtzionatzen ari den egunkaria...

bizirik eta ezin hurbilago darabilten beste gerra horretan neutraltzat geratu eta gero irabazlearekin ezkontzeko), sukaldarien eta atsegin ez duten edonoren aurka hasi duten erasoaldi berri horrekin. Horietako batzuek

bere betidaniko fanatikokerian oso hurbilekoak izan dituzten Balkanetako intelektual batzuen ibilbiderik hitsena errepikatuz, *intelligentsia* burokratikoak arazoak gaiztoztzen joka dezakeen paperaren frogantza

eguneratua eskaini nahi dute, agi denez, sukaldari batzuek baino gutxiengoago antatu behar izan duten saltsero hauek. Jaunak ordain biezaie, geroak nekez eskertuko diena.

Iberdrola, nora eta nola

Egunik zailenak igaro zitueneko 20. urteurrena betetzen denean xuxen-xuxen egokituko zaio Iberduero izandakoari bere enpresa-nortasunari buruzko erabakirik zailena hartzea, ostiraleko Ministro Kontseiluak Endesarekiko batasuna zilegitzeko baldintza oso bihurriak ezarri dizkion ondoren. Konpetentziaren Defentsako Auzitegiak ezarritakoak baino samurragoak, hala ere, baina edonola ere bateratzearen errentagarritasuna ia hutsean uzten dutenak. Hasieratik zalantzagarrria zena, inoiz baino kolokago dago orain, goi-arduradunek nahi eta ez arerrera egin beharko duten arren.

Irabazi handiak, ekonomikoak baino gehiago politikoak, lortzeko asmoz operazioa abiarazi zuena, PPko gobernu eta preseski bere lehendakaria, da galtzaile nagusia haatik. Elektraindarraren alorrean ere liberalizazioaren errezeta dantzatu ondoren, Aznarrek makrofusio hau bultzatu baino gehiago behartu egin zuen gutizia taktiko-politikoek eraginda... nahitaez Europar Batasunaren ezezkoarekin topo egin behar zuela aintzakotzat hartu gabe. Orain, gobernuak berak estutu behar izan du ataka, otsoa zain ipin ez dadin. Baina estuaren estuz oiloak ezin badu atera? Bidezidorrak ez zirela onak entzun nion behin ez dakit nori...

begi zeharka

Harkaitz Cano

JOE JACKSON

Emakume ederrak gorilekin

Emakume ederrak oinez gorilen konpainian nire kalean behera...» Horrela hasten zen Joe Jacksonen lehen diskoko *Is She Really Going Out With Him?* kantu ezaguna. Horixe izan da gure arazoa ere, Joe: kaleak gureak (edo) izan diren arren, kalean behera doazen emakume ederrak gorilen konpainian ikusi ditugu beti. Hainbat film eta kantutako topiko bilakatu baino askoz lehenago bihurtu zituen Joe Jacksonek harreman modernoak bere kantu zorrotzen jopuntu. Berak aitortzen duenez, lekuz kanpo sentitu izan zen beti Ingalaterran eta horregatik aldatu zen New Yorkera duela hogeitau urte, «munduko tipo arraro guztiek hemen bukatzen dutelako. Zu edonolakoa izanik ere, beti aurkituko duzu

norbait bitxiagoa». Bere kantuetan agertzen diren pertsonaiak hiri horretan ikusi eta ezagututakoak omen dira guztiak. Tom Waitsek zioen eran, kantuek anatomikoki zuzenak izan behar baitute: eguraldi bat behar dute beren baitan eta hiri baten izena, edo areago, batzuetan edateko zerbait ere bai, badaezpada, egarrituko bagina edo.

Haur argal eta asmatikoa izaki, bizitza eta igande arratsaldeak konponduko dizkion norbaiten bila joan aurretik haien buruari barruan zerbaiterako gai den norbait bizi ote zaien galdetzen dioten horietakoa izan zen. Gaztetan, egunez piano, biolin, oboe eta perkusio ikasketa



klasikoak egiten zituen bitartean, kabet zirkuituko piano jole gisara lan egiten zuen gaez, marinel mozkorrek eta perdido jendea entretenituz. «Pubetako ateetan borroka bila elkartzen diren arrote horietako bat izatetik libratu ninduen musikak», dio, bera bezalako musikarien kasuetan posea eta naturaltasuna, biak ala biak, gezurra eta egia bezain elkarri atxikirik egon ohi diren arren. Pop garratzaren ildoetan abiatu bazen ere, apenas dagoen Joe Jacksonen landu ez duen musika estilorik. Kritikak eta publikoak «disko ulertezin gehiegi» egin izana leporatzen diote atzo Donostian izatekotan zen musikari honi. Zerbait berria bilatzea beti. Ez zait sekula ahaztuko Principal antzokian bisen garaia heldurik publiko artetik «jo ezak bat betikoa!» exijitu zuen entzulearen oihua eta ohol gainean zegoen kantariaren irribarre etsia. Hau musika da, *aixkidea*, donut bat nahi duenak altza dezala hatz erakuslea.